UDALA: ISPASTER

SAILA: HIRIGINTZA

PROZEDURA MOTA: IREKI SINPLIFIKATUA

ESPEDIENTE ZENBAKIA ETA URTEA: 2025

LIZITAZIOA:

ORGANIKOA BILDU ETA TRATATZEKO 12 TANBOR ERAKO KONPOSTAGAILUREN HORNIDURA ETA MUNTAIA ARAUTUKO DUEN OINARRI TEKNIKOEN ZEHAZTAPENA

0. SARRERA:

Ispasterren, etxeetatik eta sortzaile handiengandik sortzen den organikoa herrian bertan konposta eginez bildu eta tratatzeko erabakia hartu da, etxe konposta eta auzo konposta eginez.

Auzo konposta egiteko beharrezko diren konpostagailuak erosteko aterako da lizitazio hau.

1. HELBURUAK:

Lizitazio honen bidez, herrian jarri nahi diren auzo konposta egiteko guneetarako konpostagailuak erosi nahi dira.

Konpostagailu hauen bidez, ondoko helburuak ere bete nahi dira:

a. 20-30 familietako konposta egitea gune bakoitzeko.

b. Sagu, eltxo eta bestelako animaliak ekiditea.

c. Kiratsa ekiditea.

d. Kalitatezko konposta egitea.

e. Konposta egiteko aukera ematea, etxean egin ezin duenari.

f. Konposta egitea erosoa eta erakargarria izatea.

2. DESKRIBAPENA:

Erosiko diren konpostagailuek ondoko ezaugarriak izan behar dituzte:

a. Aireko konpostagailuak izatea, tanbordunak.

b. Itxiera hermetikoa izatea.

c. Tanborra fabrikazioz pieza batekoa izatea; tanborra montatu beharreko pieza ezberdinez osatuta ez egotea.

d. Konpostagailu bakoitzak 2 konpartimentu izatea.

e. Bere ardatzaren baitan biratzeko aukera izatea.

f. 5-10 cm arteko isolamendu hormak izatea.

g. Etengabeko aireztatzea eta lixibiatuen irteera bermatzeko zuloak izatea.

h. Garraioa eta muntaia prezioaren barne izatea.

Ondoko osagarri hauek ere baloratuko dira:

a. Konpostaren jarraipena egiteko beharrezko diren materialak ekartzea, hots;

termometroa, hezetasun maila neurtzeko gailuak, etab. (kit bat erosketa guztiagatik)

b. Konposta hustutzea errazteko orgatila bat ekartzea. Konpostagailuaren azpian sartzeko moduko neurria duena.

3. EROSKETA KOPURUAK ETA PREZIOAK:

12 konpostagailu erosi nahi dira.

Konpostagailu bakoitzaren gehienezko prezioa 2.000,00 €takoa izango da, BEZA kanpo.

4. EPEAK:

Konpostagailu hauek kontratua sinatu eta BI hilabeteko epean ekarri, montatu eta fakturatu behar dira gehienez.